

Erakusketa Kultura ekoizpena

📍 Mariaren Bihotza Plaza, 4

☎ (Marina) 717705524

✉ sareanelkarte@gmail.com



www.sarean.info
[fb/sarean SF](https://www.facebook.com/sareanSF)



AZALPENA

NORTZUK GARA Mariaren Bihotz enparantzan dagoen topaketa soziokulturalerako espazioa gara. Auzoko kolektibo eta auzotarrez osatutako elkarte batek koordinatuta dago, 20 bat bazkide aktibo duena.

GURE LANA ekintza kulturalak programatzea da, kohesio soziala eta bizikidetzaren indartzeaz batera, barutiko jarduera artistikoak bistaratzeko. Programazioa modu irekian eta partizipatiboan egiten da.

ESPAZIOA balio anitzeko lokal zabala da, taberna/jatetxea du eta erakusketak, kontzertuak, tailerrak, proiektzioak etab... antolatzen dira.

AUZOAN GAUDE 80ko hamarkada amaieratik proiektuak hainbat fasetatik igaro da, okupazioa eta lagapena esaterako, gaur eguneko formaturaino heldu arte, 2015eko abuztuan inauguratu zena.

HAUEKIN ARITU GARA ELKARLANEAN Recrea2 // WikiToki // Taldeen koordinakundea // Aldauri // Jai Batzordeas // San Franeko Ortua // Zaramari // SanFran 38.

SAREARI ESKAINTZEN DIOGU

ESPAZIOA: Proiektua ekintza kulturalak antolatzeko asmoarekin sortu zen, modu partizipatiboan, beraz, espazioa beti dago erabilgarri.

JARDUERA MOTA: Denetarik, besteak beste, erakusketak, performanceak, kontzertuak, sukaldaritza-jarduerak, batzarrak, proiektzioak...

TRESNAK/BALIABIDEAK: Altzariak (aulkiak eta mahaiak) eta proiektorea.

GONBIDATZAILEAREN LAGUNTZA: Ekoizpena eta zabalkundea.

ERABILTZeko AUKERA (¿NOIZ?): Beti, baina jarduerak bazkideren batek babesean hartu behar ditu.

AUZOARENGANDIK BEHAR DUGU

ESPAZIOA: Erremintak erabiltzeko tailerrak, biltegi moduan erabiltzeko espazioak, edukiera handiko lokalak.

JARDUERA MOTA: Prestakuntza teoriko edo praktikako tailerrak, publiko handiko jarduerak.

TRESNAK/BALIABIDEAK: Plotterra, erremintak (zulatzailea eta abar), musika ekipamenduak, koadroetarako markoak.

GONBIDATZAILEAREN LAGUNTZA: Soinu teknikariak, graffiti artistak, programatzaileak.

ERABILTZeko AUKERA (¿NOIZ?): Beti.

